


HAURRENTZAKO INGURU SEGURUEI
BURUZ GIZARTE-ERAKUNDEEI
ZUZENDUTA 48 GALDERA...




...ETA ERANTZUN BATZUK

bidegintza
gizarte
ekimeneko
kooperatiba



EDUKIEN TAULA

SARRERA	3
1- ESPARRUA ETA TESTUINGURUA...	4
2- GALDEREN ARDATZAK.....	5
3- IKUSPUNTU BATERATU EDOTA KOHERENTEA DUGU ABIAPUNTU BABESTEAK ADIERAZTEN DUENARI Buruz?	6
4- GURE ESPAZIOAK NAHIKOA BABESTEN DU? 7	
5- KONTZIENTZIA, PRESTAKUNTZA ETA GAITASUN NAHIKOA DUGU BABESTEKO? 8	
6- HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEA AHALBIDETZEN ETA BULTZATZEN DUGU?	9
7- GURE BABESTEKO ZEREGINA HOBETZEKO TRESNARI BADUGU? 10	
8- ONDORIOAK	12
9- BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK 13	





SARRERA

Gizarte-intereseko eta irabazi asmorik gabeko kooperatiba bat gara **Bidegintza**, eta Bilbon kokatuta dago. Bidegintzaren misioa **pertsonen eta komunitatearen garapena sustatzea** gara.

Duela 30 urte baino gehiago hasi ginen gizarte- eta hezkuntza-prozesuak bultzatzen, **ikuspegi komunitario** batetik, familientzako, haurrentzako, nerabeentzako eta komunitatearentzako proiektuekin. Gure eredua bat dator **Haurren Eskubideen Ikuspegiarekin**.



Azken urteotan, **Haurren Babeserako eta Tratu Onerako Politika** (HBTOP) sortu dugu, Bidegintza eta komunitatea haur eta nerabeentzako ingurune seguruak direla ziurtatzeko.

Hortik abiatuta, **sentsibilizazio, prestakuntza eta aholkularitza ekintzak** bultzatzen ditugu, gizartean eta komunitatearen baliabideetan kultura sortzeko haurrei tratu ona emateko.

Haurren eskubideak babesteko **hainbat foro eta saretan** parte hartzen dugu, hala nola EAPN Euskadiko Haurren Batzordean, Lainfanciaen centro sarean (Estatuko beste 46 erakunderekin batera) eta Babeki sarean (EDE Fundazioarekin, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Bilboko Athletic Clubekin batera).

Hainbat erakunde, instituzio, administrazio, eskola eta unibertsitatearekin lankidetzan aritzen gara **haurren babesaren** arloan.

TratuonARTEan kanpaina garatu dugu, haurrak, nerabeak eta helduak tratu onaren inguruan sentsibilizatzeko eta gai horri buruz esateko dutena entzuteko jarduerekin. Horrez gain, "Tratu onaren formulari" buruzko hainbat lantegi dinamizatzen ditugu Bizkaian.

Bi blog espezifiko ditugu, tratu onean hezteko baliabideekin: buentratarte.blogspot.com eta proyectomantangorri.blogspot.com

Honako material hau ere argitaratu dugu: "Haurtzaroan tratu onari jokia ematen". Material horretan, honako hauek jaso ditugu: **"Bidea bilatzen"** erresilientziarako ipuina, haurren eskubideei buruzko **Joku Fitxak Koadernoak** eta **"Tratu onari buruzko haurren ahotsak"** memoria.

Bestalde, **"Lotzen Programa** ikasleekin talde kohesioa lantzeko era bat" gida ere argitaratu dugu, jardunbide egokiaren adibide bat hezkuntzaren esparruan haurren tratu ona bideratzeko (Bilboko Alde Zaharreko Gizarte eta Hezkuntzako Esku Hartze Taldeak garatutakoa).



Eta **"Helduen ahotsak** haurren tratu onari buruz", sistematizatzen dituen hainbat esparrutako pertsona helduen hausnarketak: familia, eskola, osasun-arloa, kirola, aisialdia, hezkuntza eta gizartea, politika, Arartekoa, komunikabideak, artea eta kultura...

Oraingoan, "Haurrentzako inguru seguruei buruz gizarte-erakundeei zuzenduta 48 galdera... eta erantzun batzuk" lana aurkezten dugu. lan honetan ingurune seguru gisa garatu dugun prozesuan egin ditugun hausnarketak eta proposamenak biltzen ditugu.

Haur eta nerabe oro eskubideak dituen pertsona da. Ongizatean hazteko eta garatzeko aukera izan behar du. Horretarako, helduok haur eta nerabeak babesteko ingurune seguru bat sortu behar dugu, haien beharrak asetzeko eta dituzten bizi-ahileziak garatzen laguntzeko.

Haur eta nerabeei laguntzen diegun helduok argi izan behar dugu horrek zer dakarren, eta, gure erantzukizunetik, beharrezko tresnak izan behar ditugula maila pertsonalean, profesionalean eta antolakuntzaren mailan.

Gida honen bidez, gure esperientziatik abiatuta, partekatu nahi izan ditugu gizarte-erakunde bat eta beste baliabide batzuk ingurune seguruak izan daitezen egin beharreko azterketan, ebaluazioan eta diseinuan sortutako hainbat galdera, kezka, erantzun eta erronka. Haurrak babesteko ibilbidean sentsibilitate berezia eta eskarmentua ditugula jotzen da. Eta, hori horrela izanik ere, bide luzea dugu egiteko.



I- ESPARRUA ETA TESTUINGURUA

ESPARRU TEORIKOA

Gure ikuspegi teorikoa elkarri lotuta dauden ereduen eta ikuspegien ekarpenetan oinarritzen da, hala nola:



HAURREN ESKUBIDEEN ikuspegia

- Babesa.
- Haurren interes gorena.
- Diskriminazio eza.
- Parte-hartzea.



TRATU ONA ETA ERRESILIENTZIA. BARUDY

- Ingurune fisikoak, sozialak eta familiak emandako zaintza afektiboak, sozialak eta babestekoak/babesgarriak.
- Tratu onak bermatzen dituzten politika publikoak.
- Erresilientzia mikrosisteman, makrosisteman eta pertsonan.



DIMENTSIO KOMUNITARIOA

Heziketa-lanaren dimentsio komunitarioa.
Talde zaurgarrienei zuzendutako arreta.
Errealitatearen analisia, sustapena eta salaketa.
Lurraldea eta sarea.



INGURU SEGURUEN azterketarako EREDUA (ESPIRALES C.I.)

Inguru fisikoaren azterketa.
Inguru emozionalaren azterketa.
Gaitasun profesional kontzientek.
Haurren parte-hartzea.



EKARPENAK: KEEPING CHILDREN SAFE


Tresnak garatzea, hala nola Haurren Babeserako eta Tratu Onerako Politikak.

Horietatik guztietatik, **Espirales Consultoría** erakundearen ikuspegia da, (bertan prestakuntza jaso dugu) zalantzarik gabe, prozesu osoan modu esanguratsuan aurrera egiteko aukera eman diguna eta dokumentu hau gidatzen duen ardatza.

Gainera, 30 urteko eskarmentua dugu gizartearen eta hezkuntzaren arloan lanean, eta horrek begirada berezia ematen digu. Beste prestakuntza osagarri batzuk ere jaso ditugu: Irtenbideetan Oinarritutako gizarte eta hezkuntzako Esku-hartzea, Lotura Emozional Kontzientean oinarritutako Adimen Emozionala, Pedagogia Sistemikoa, Psikomotrizitate Erlazionala eta beste diziplina batzuk.

Jakina, kontuan hartzen ditugu baita ere arlo horretan ibilbide luzea duten gizarte-erakundeen eta GKEen ekarpenak (UNICEF, Save The Children, EDUCO, Aldeas Infantiles, etab.).

ESPARRU ARAUEMAILEA



Haurren eta nerabeen babesa hainbat arautan jasotzen da, nazioartean, estatuan, autonomia-erkidegoan... Honako hauetan, besteak beste: Haurren Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 16.2 GIHa (amaiera ematea haurren kontrako tratu txarrei, esplotazioari eta indarkeria- eta tortura-mota guztiei), Haurrak Indarkeriaren Aurrean Babesteko Lege Organikoa (2021), Haurren kontrako Indarkeriari aurre egiteko Euskal Estrategia eta beste batzuk.



2- GALDEREN ARDATZAK



Ondorengo bost ardatz hauetan oinarritzen ditugu gure ingurua segurua izan dadin egin dugun prozesuko galderak eta erantzunak. Erakundeko organoekin, batzordeekin, langileekin, haur eta nerabeekin, familiekin, baliabideekin... landu ditugu. Banaka eta taldeka landu ditugu, esperientzia-metodologiaren bidez, brain-storming edo ideia-jasen bidez sistematizazioaren bidez, eta Espirales C.I.-ren Ingurune Seguruaren gidako adierazleetan oinarrituta, nagusiki. Maila bakoitzeko emaitzak urteko ekintza-plan koherenteetan jasotzen dira, eta erakundeko beste plan batzuetakoekin lotzen dira: Prestakuntza, Komunikazioa eta Kudeaketa Orokorra

BABESTU



Sentsibilizatu

Aurrea hartu

Esku hartu


Indarkeriaren aurrean ikuspuntu bateratua eta koherentea dugu abiapuntu?

ESPAZIOA


Segurtasun-
elementuak, dimentsio
zabalean

Gure espazioak nahikoa babesten du?

GAITASUNAK



Kontzientzia

Abileziak

Prestakuntza

Komunitatea

Kontzientzia nahikoa, prestakuntza, eta abilezia dugu babesteko?

PARTE-HARTZEA



Entzutea

Protagonismoa

Haurren eta nerabeen benetako parte-hartzea bultzatzen dugu?

TRESNAK



Politikak

Estandarrak

Protokoloak

Babes-erreferenteak

Babesteko gure zeregina hobetzeko tresarik badugu? Ba al dugu babesaren esparruko erreferenterik?



3- IKUSPUNTU BATERATU EDOTA KOHERENTEA DUGU ABIAPUNTU BABESTEAK ADIERAZTEN DUENARI BURUZ?

Zenbait gogoeta:

Haurren Eskubideen

Ikuspegiaren arabera, haur eta nerabeak eskubideak dituzten subjektuak dira (erantzukizunak dituzten subjektuak ere badira, eta horretarako hezi behar dira).

Helduekiko duten mendetasun-egoera dela-eta, haien premiak konpontzen direla eta **ongizate integralean** oinarritutako bizi-gaitasunak gara ditzaketela zain dezaten **erantzukizunen eta betebeharren titularrak** behar dituzte.

Haurren Eskubideen


Adierazpenaren lau printzipioetako bat da babesak.

Babesaren arloan lan egiten badugu, eta arlo hori zentzu zabalean hartuta, indarkeriazko egoerak gertatzen direnean **esku hartzeaz gain, sentsibilizatzeko eta aurrea hartzeko** ere esku hartu behar dugu.

Beharrezkoa da hori komunitate-mailan azpimarratzea eta indarkeriarik gabeko **ingurune seguruak** sustatzea, helduek eta haur eta nerabeek **tratu onean oinarritutako jarrerak eta portaerak** izan ditzaten.

Horrek esan nahi du **konpromisoa izan behar dugula eta sentsibilizatuta eta prestatuta** egon behar dugula, eta helburu hori modu behar dugula, eta helburu hori modu **proaktiboan** lortzeko **tresnak izan behar ditugula**

Batzuetan, haurrak babesteko eredu beretik abiatzen garela pentsatzen dugu. Eta, sakontzen dugunean, ohartzen gara hori ez dela guztiz horrela. Erakundearen beraren barruan gerta dakiguke, eta, askotan, sarean **lan egiten dugun** baliabideekin, eragileekin eta administrazioekin ere bai. Hurrengo honeek dira gure hausnarketarako egin ditugun galderetako batzuk:egin ditugun galderetako batzuk:



GOGORA DEZAGUN... Haur eta nerabeak osasuntsu garatzeko, **segurtasun afektiboa** behar dute. Horretarako, gurasoek, lotura seguruaren arloan gaitasunak izatea beharrezkoa da, bai eta laguntza emateko baliabide komunitarioak izatea eta erresilientzia sustatzea ere. Hala, bada, **tratu orneado kultura** eta **prestakuntza zentzu zabalean** sustatuko duten **politika publikoak** behar dira. Eta, jakina, indarkeria kontzientea nahiz inkontzientea, zeharkakoa, ezkutukoa edo "normalizatua" deuseztatu behar da. Baita online nahiz testuinguru estruktural edo instituzionalaren bidez egiten dena ere. Azken testuinguru horretan ere jardutea eta esku hartzea dagokigu



4- GURE ESPAZIOAK NAHIKOA BABESTEN DU?

Gure espazio fisikoa aztertzeak gauza askotaz jabetzeko aukera ematen digu, eta segurtasunaren kontzeptuaren zentzu zabalaz jabetzen laguntzen digu. Segurtasunaren kontzeptu hori espazio horretan elkarren ondoan bizi diren pertsonekin lotuta dago. Inguru segurua lortzeko prozesuan balioetsi beharreko lehenengo maila izango litzateke. Ondoren, espazioetan lantzen ditugun galderen eta erronken zenbait adibide jaso ditugu::

BA AL DAGO HAUR ETA NERABEENTZAT EGOKITUTAKO INFORMAZIO ESKURAGARRIRIK INDARKERIARI AURRE EGITEKO LAGUNTZA-BALIABIDEEI BURUZ? ?

- Kartelak eta liburuxkak, haurrentzako arreta-zerbitzuekin harremanetan jartzeko kontaktuekin.
- Ongietorri KITA, egokitutako Babes Politikarekin eta erakundeko babes-erloto erreferenteen izenarekin eta haiekin harremanetan jartzeko moduekin.

ERAKUNDEA EZAGUNA AL DA KOMUNITATEAN??

- Jarduerak komunitatetik gertu dauden lekuetara eta "kalera" hurbiltzea.
- Erakundeari buruzko informazio-kartela sarreran eta sare sozialetan modu dinamikoan parte hartzea.
- Komunitatearen aurrean jarrera irekia izatea, kontsultetarako, proposamenak egiteko, kontaktuak emateko, espazioak erabiltzeko...

HAUR ETA NERABEEN DATUEN ETA IRUDIEN ERABILERA EGOKIA AL DA?

- Tutoreei eta haur eta nerabeei (adinari egokitu) irudiak erabiltzeko informazioa eta baimenak.
- Duintasuna, errespetua eta positibotasuna nabarmentzen dituzten txostenak, datuak eta irudiak. Erabilera pedagogikoa.
- Datuak eta irudiak tratu onaren ikuspegitik erabiltzeko *check-lista*.
- Konfidentzialtasuna zaintzea bileretan eta prestakuntza-saioetan.

TALDEAREN ETA KOMUNITATEAREN DIMENTSIOA KONTUAN HARTZEN AL DA ESPAZIOAN?

- Espazio zabalagoak, zehatzagoak eta haur eta nerabeentzat egokitutakoak, harrera, itxiera, batzar, gatazken konponbide, jardueren diseinu eta abarretarako.
- Taldeentzako eta komunitatearen topaketetarako espazioak diseinatzea, elkar zaintzeko sareak sortzeko

BA AL DAGO SEGURTASUN FISIKOA BERMATZEN DUEN ELEMENTURIK?

- Irisgarritasuna hobetzeko ikerlanak.
- Istripuetatik babesteko elementu gehiago.
- Suteen aurka entseaturako protokoloak.
- Bainugela egokituak eta seguruak ("biltegi" izateari utzi diote)
- Teknologiai gainbegiratzea eta kontrolatzea (horren inguruko prestakuntza)

SEGURTASUN-EMOZIOAK ERRAZTEKO DISEINATUTA AL DAGO ESPAZIOA?

- Berokuntza hobe, hormak margotzea argitasun handiagoa izateko eta espazio irekiagoak.
- Naturako elementu gehiago eta musika. Emozioak berraseguratzeko jolasak, baita itxaroteko guneetan ere.
- Dekorazio atseginagoa, haur eta nerabeentzako egokitua eta haien parte-hartzearekin egindakoa.
- Haur eta nerabeentzako espazio komunak eta partikularrak


Taldean egindako ariketa txiki bat...

"Segurtasuna ematen didan leku batean pentsatzen badut, naturan dagoen leku bat irudikatzen dut, argitsua eta beroa dena, eta uraren soina entzuten da inguruan. Edo etxeko "nire txokoa", liburu batekin eskuan edo luzaketa-ariketak egiten lurrean. Eta urdaiazpiko ogitarteko bat sukaldean zain dudala. Bakarrik edo jendearekin egon naiteke. Horrelako leku ezagun bat imajinatu nezake, edo leku berri bat, inguruan arriskurik ez dagoela sentitzen dudana. Edo nire jakin-mina pizten duten eta aktibatzen nauten erronkak eskaintzen dituen..."

Pertsona heldu batek espazio seguru bati buruz duen ikuspegia izan daiteke hori. Izan ere, gure hezitzaileetako batena da. Nolakoa da zure **espazio segurua** eremu pertsonalean? Eta esparru profesionalean? Eta haur eta nerabeen kasuan?

Antzeko zerbait izan daiteke, haien beharretara eta interesetara egokituta? Horri buruz galdetu geniezaieke?

Ariketa hau erakundeko haur eta nerabeekin egin dugunean, tenperatura, zabalatasuna, espazio pertsonalak izateko aukera eta leku horretan familiarekin, parekoekin edo maite dituzten pertsonekin denbora partekatu ahal izatea nabarmentzen dituzte. Eta, batez ere, leku horretan JOLASTU ahal izatea. Jokoa, zalantzarik gabe, espazio trantsizionala da berez, eta emozioak berraseguratzeko bide indartsua. Jolas egiten ez duen haur bat ikusten badugu, adi!





5- KONTZIENTZIA, PRESTAKUNTZA ETA GAITASUN NAHIKOA DUGU BABESTEKO?

Bidegintzan egindako beste ariketa txiki bat. Imaginatu dezagun 10 maila dituen eskailera batean gaudela (0 da maila baxuena eta 10 altuena). Zein mailatan egongo ginateke profesional eta erakunde gisa ditugun gaitasunei dagokienez, haurrak indarkeriaren dimentsio guztietatik babesteko? Zer indargune ditugu maila horretan egoteko? Demagun beste maila bat igo dugula, zer litzateke desberdina? Horiek dira gure erronkak. Hona hemen berrikusi eta landu ditugun item batzuk, aurrera eramango ditugunak:

1-ERAKUNDEAREN KONPROMISOA

- Babesaren eta Tratu Onaren aldeko Bazkideen Batzarraren aldeko apustu esplizitua.
- MMBren arloko sustapena + prebentzioa + esku-hartzea
- Tratu Onaren Ikuspegi Komunitarioa.
- Babeserako barne-politikak sustatzea.
- Profesionalak zaintzeko ekimenak.
- Taldean lan egiteko, kontrastatzeko eta gainbegiratzeko aukerak.
- Langileak hautatzeko prozesu seguruak.
- Gai horri buruzko prestakuntzarako aukera

4- KOMUNITATEA

- Sentsibilizazio-kanpainak.
- Elkarri laguntzeko sareak eraikitzea.
- Haurrek ekimen komunitarioen diseinuan parte hartzea. Gaiari buruzko sentsibilizazio-, ekintza- eta salaketa-sareetan inplikatzeko.

2- GAITASUN PROFESIONALAK BERRIKUSTEA

- Haurrei buruz indarrean dauden araudi eta legeak eta horien protokolo-garapenak ezagutzea.
- Afektibitatea eta loturak.
- Norberaren zainketa eta laneko estresaren kudeaketa emozionala.
- Esku-hartzearen plangintza ona.
- Detekzio eta laguntza egokia indarkeria-kasuetan.
- Gatazkak konpontzea. Sareko lana.

3- ZENBAIT ALDERDI ZEHATZETAN BIRZIKLATZEA

- Haurren eskubideak.
- Indarkeria detektatzea. Sexu-abusua.
- Traumaren esanahia eta hezkuntza-mailako lanketa.
- Heziketa emozionala
- Sareko lan eraginkorra.
- Haurren eta nerabeen parte-hartzea



Burn-out edo neke profesionala da haur eta nerabeekin lan egiten dugunoi eragiten digun arazoetako bat, bereziki indarkeriaren biktimak direnean edo arriskuan daudenean. Horregatik, funtsezkoa da erakundeek eta pertsonok estresa kudeatzeko mekanismoak izatea. Inkesta baten eta ondoren inkesta horren inguruan gure erakundearen izandako eztabaida baten arabera, hauek dira erakundearen barnean estresaren aurka identifikatutako faktore nagusiak: arnasa hartu ahal izatea, gorputza luzatzea eta une jakin batzuetan atsedean hartzea, umorera jotzea, irakurtzeko, prestatzeko eta planifikatzeko denbora izatea eta, batez ere, harremanetarako, kontrasterako eta gainbegiratzeko espazio atseginak izatea. Hori guztia erakundearen Kudeaketa Planera eraman da, elementu horiek eguneroko zereginean errazago txertatzeko.





6- HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEA AHALBIDETZEN ETA BULTZATZEN DUGU?

Haurren eskubideei buruzko parte hartzen dugun foro eta sareetan, galdera bera sortzen da beti: zer da haurren parte-hartzea? Nola ahalbidetzen dugu? Zein da gure zeregina? Zalantzarik gabe, gauditu gabeko irakasgaia da hori. Parte hartu ahal izateko, "utzi egin behar digute" eta, gainera, nola egiten den jakin behar dugu.

Horregatik, funtsezkoa da ikaskuntza-espazio zehatzak eskaintzea horretarako, edo edozein hezkuntza-ekintzatan elementu jakin batzuk txertatzea: entzutea, asertibitatea, errealitatearen azterketa, pentsamendu kritikoa, arazoaren ebazpena, erabakiak hartzea... Eta bidea eginez ikasten da. Hauek dira Bidegintzan kontuan hartzen ditugun erronka batzuk, haur eta nerabeen parte-hartzea sustatzeko.

PROIEKTUAK ETA HEZKUNTZA-IBILBIDEAK



- Haur eta nerabeekin hezkuntzako helburuak diseinatzea eta kontrastatzea.
- Familiekin eta hainbat arlotako profesionalekin egindako bileretan parte hartzea (edo haien iritzia helaraztea).
- Hezkuntza-prozesuaren ebaluazioak egitea, jarraipen-txostenetan.
- Haien eskaerak edo proposamenak entzutea, beren bizitzari buruzko erabakiak hartzerakoan.
- Haien eskaeren edo proposamenen egoeraren feedbacka.
- Haien autonomia sustatzea eta familiaren eta komunitatearen bizitzan parte hartzea, familia-, norbanako- edo talde-mailako hezkuntza-proiektuetan.

	PROGRAMAK ETA JARDUERAK ANTOLATZEA ETA GARATZEA • Hezkuntzaren zeharkakotasuna, jarduera edo programa bakoitzean parte hartzeko. • Haur eta nerabeen beharrak, interesak eta proposamenak kontuan hartzea jarduera edo programa bat diseinatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko orduan. • Haur eta nerabeek ezagutzen dituzten kanalak erabiltzea komunikatzeko. • Bizi-gaitasunak, erresilientzia eta norberaren babesa lantzeko programa zehatzak. • Jardueren ingurune fisikoa diseinatzeko, gauzatzeko eta jarraipena egiteko zereginetan parte hartzea. • Hainbat formula erabiltzea, hala nola batzarrak, rolak eta txandakako erantzukizunak. • Belaunaldien arteko ikuspegia programetan eta jardueretan.
	ERAKUNDEAREN PROZESUAK • Barne Planak eta Politikak haur eta nerabeekin kontrastatzea. (Adib.: BTOP) • Haur eta nerabeek hezitzaileen gaitasunak ebaluatzea. • Ongietorria egiteko KITa (indarkeriaren aurrean parte hartzeko/harremanetan jartzeko bideei buruzko informazioa barne). Agur esatekoa ere bai, errituen laguntzarekin. • Haurren parte-hartzearen inguruko prestakuntza, Urteko Prestakuntza Planaren barruan. • Haur eta nerabeen iritzia aintzat hartzea profil profesionalak diseinatzeko orduan. • Haur eta nerabeentzako material "lagunkoiak" politiketan, planetan eta abarretan. • Hainbat formula erabiltzea erakundean, hala nola Entzute Taldeak edo Haurtzaroari buruzko Kontseiluak.
	BIZITZA KOMUNITARIOA • Komunitatean antolatzen diren haurrentzako jardunaldiak, jaiak eta ekitaldiak diseinatzeko, gauzatzen eta ebaluatzen parte hartzea. • Haur eta nerabeen iritzien eta gogoeten presentzia komunitatea sensibilizatzeko edozein ekintzatan. • Komunitateko baliabideetan eta administrazioarekiko harremanean honako hauek bultzatzea: Entzute programak, Haurtzaroari buruzko Kontseilu Zibikoak, Ikaskuntza eta Zerbitzu Programak, partaidetzan oinarritutako Hezkuntza 360... • Haur eta nerabeek auzoen errealitatea aztertzeke prozesuetan parte hartzea.



7- GURE BABESTEKO ZEREGINA HOBETZEKO TRESNARI BADUGU?

Aurreko galderetatik sortutako hausnarketek, proposamenek eta ideiek gure babes-ingurunea mantentzen, berrikusten eta hobetzen lagunduko diguten hainbat tresnaren lanketa gidatuko dute. Adibidez, Babeserako eta Tratu Onerako Politika (BTOP) eta Parte Hartzeko Estandarrak. Ez dira estatikoak, aldian-aldian berrikusten dira, eta erakundearen ekintza-planetara eta “bizitzara” eramaten dira.

HAURRAK ETA NERABEAK BABESTEKO BARNE-POLITIKA

Tresna hau ez da azken helburua, nahiz eta zenbait testuingurutan horretara jotzen den legea betetzeko baldintza gisa. Analisien, galderen eta erantzunen aurretiazko prozesu guztiaren emaitza izan behar du. Erakundeko organoen, langileen, programetan parte hartzen duten pertsonen eta komunitateko baliabideen lanaren eta alderatzearen emaitza. Politika “biza” izan behar du. Bidegintzaren BTOPk honako hauek jasotzen ditu:



PARTE HARTZEKO ESTANDARRAK

Estandar horietan, prozesuetan haurren parte-hartzea txertatzeko interesen adierazpena jasotzen dugu, eta kontzeptu hori zer den eta parte-hartzeari laguntzeko ekintzak zeintzuk diren adierazten dugu. Sortu ondoren, *Cheklistera* pasatzen ditugu, ekintza edo une desberdinetan kontuan hartzeko. Izan ere, kosta egiten da oraindik ere “txip” hori hezkuntza-ekintzaren DNA txertatuta izatea. Parte-hartzearen ezaugarri hauek gogoraraziko ditugu:

- ESKUBIDE bat da, ez “borondate onez egiten den mesede bat” edo “modernotasunaren” erakusgarri bat.
- Sentsibilitatea eta prestakuntza behar ditu, nola sustatu jakiteko.
- Zehaztu egin behar da. Ez du asmo-deklarazio hutsa izan behar.
- Borondatezkoa izan behar du, ezin da inor behartu “parte hartzera”. Nolanahi ere, ikusi beharko da zer egiten ari garen ondo edo gaizki parte-hartzea gertatzeko edo ez gertatzeko, zer trebetasun bultzatu behar diren eta nola lagundu behar den “espiritu kritikoa eta autonomia” sortzen.
- Gure lanaren zati da, eta kalitatezko lana izatearen eta Haurren Eskubideen Ikuspegiarekin bat datorren seinale da.
- Lehenik eta behin, ENTZUTE-LAN ona egin behar dugu. Eta, horretarako, emozionalki pertsonak “jasotzeko prest” egon behar dugu. Lasaitasuna, jakin-mina eta segurtasuna dira horretarako emozio egokienak. Hitzetako nahiz hitzik gabeko komunikazioa erabiliz.



BABESAREN ESPARRUKO ERREFERENTEAK

Interesgarria da haurren babesaren esparruan erreferentziazko pertsonak, koordinatzaileak edo puntu fokalak izatea. Bidegintzan, **Haurrei Tratu Ona Emateko Batzordea** sortzea erabaki dugu, eta bost pertsonak osatzen dute. Erakundean haurrei tratu ona ematen zaiela zaintzea da Batzorde horren eginkizuna, erakundeak ingurune segurua izateko hobekuntza-prozesuan aurrera egin dezan. Baina zeregin hori ez dagokio soilik batzorde horri. Erakunde osoak eta pertsona guztiek egon behar dugu inplikaturik prestakuntzako, gogoeta egiteko, kontrastatzeko nahiz ekimenak abiarazteko prozesuetan. Eta hori ez da posible izango

haurrei tratu ona emateko zereginen guztiok ikuspegi bera ez badugu. Batzarra, Kontseilu Errektorea eta Zuzendaritza, adibidez, sentsibilizatuta daude eta prestakuntza jaso dute, ikuspegi horretan sinesten dute eta prozesu sakonak bultzatzen dituzte horretarako.

Babesaren esparruan erreferenteak diren pertsonen **prestakuntza-prozesu berezia** egiten dute babesaren eta **gaitasunen garapenaren** arloetan, hala nola Adimen Emozionalean, Indarkeriarik Gabeko Komunikazioan, Gatazken Konponbide Sortzailean, Pentsamendu Kritikoan eta Estresaren Kudeaketa Eraginkorrean. Zuzendaritzaren laguntza esplizitua dute, legitimitateari eta baliabideei dagokienez (materialak, denbora eta dirua), gai horren inguruan prestatzeko eta beren zereginak garatzeko:

Arloa	Babesaren esparruko erreferente diren pertsonen zereginak
Identifikatu	Babes-erreferente gisa identifikatzea, eta haren zereginak eta komunikazio-bideak zehaztea. Ikaskideen, familien, haur eta nerabeen, eragileen, bisiten eta, oro har, komunitatearen aurrean. Erakundean dauden politikak, protokoloak eta prozedurak elkarrekin lantzea eta horien berri ematea, bai barruan, bai kanpoan. Babes Batzordeko kide izatea eta organo horretatik sortutako eginkizunak garatzea.
Tresnak	Inguruneen azterketa, babes-politikak eta parte hartzeko estandarrak bultzatzea erakundean. Ekintza-planetako ebaluazio-adierazleen araberrako jarraipena egitea.
Prestakuntza	Babesaren arloko prestakuntza-beharrak aztertzea eta Prestakuntza Planera eramatea. Langileak, boluntarioak, praktiketan aritzen direnak etab. sentsibilizatzea eta prestatzea haurrak babesteko zenbait arlotan. Gaiaren inguruko Jardunbide Egokiak partekatzea.
Kontrasteak	Kontrasterako eta lagun egiteko erreferente izatea haurren kontrako indarkeria-kasuetan sortzen diren kezketan eta zalantzazko egoeretan, bai erakundearen barnean bai kanpoan. Gai horretan kontrasteak sustatzea taldeetan, taldeen artean eta erakunde osoan.
Protokoloak eta prozedurak	Langileen hautaketa segurua. Langileak hautatzeko prozesuak seguruak direla zaintzea. Pertsona berrien harreretan tratu onaren inguruko sentsibilizazio-prozesuak bultzatzea. Abusuagatiko aurrekari penalak eta BTOPrekiko konpromiso-sinadurak jasota daudela egiaztatzea. Datuen babesa. Deontologia eta datuen eta informazioaren babesa zaintzea. Indarkeriagatiko salaketak aztertzea. Indarkeria jasan dutela egiaztatu den kasuetan edo egon daitekeela uste den kasuetan (barnean eta kanpoan) protokoloak jasotzea, laguntza ematea eta behar bezala detektatzen, jakinarazten, ikertzen eta jarraitzen direla zaintzea. Beste batzuk. Beste protokolo zehatz batzuen diseinua eta jarraipena zaintzea (jazarpenaren aurkakoa, berdintasuna, parte-hartzea, protokolo espezifikoak...).
Edukiak	Haur eta nerabeen eta familien artean norberaren babeserako eta tratu onerako jarduerak edota programak egon daitezen zaintzea. Parte hartzeko estandarren jarraipena gainbegiratzea
Komunitatea	Komunitatean dauden laguntza-baliabideen eta protokoloen ezagutza sustatzea. Komunitatean haurrei tratu ona ematearen eta haurrak babestearen alde egiten diren sentsibilizazio-ekintzak bultzatzea, haien berri ematea eta partekatzea. Erakundeak haurren eskubideen, babesaren eta tratu onaren arloan lan egiten duten sare eta plataformetan parte har dezan bultzatzea



8- ONDORIOAK

Orrialde hauen bidez, orientabide batzuk eskaintzen saiatu gara, beste gizarte-erakunde eta baliabide batzuei beren ingurunea aztertzen eta berriro diseinatzeko laguntzeko, haurren segurtasuna hobetzeko helburuarekin.

Bidegintzan egin dugun eta egiten jarraitzen dugun prozesua oso ona izaten ari da, eta egiaztatu dezakegu kalitate eta justizia handiagoa ematen diela lagun egiten diegun haur eta nerabeei.

Antzeko prozesu bat planteatu nahi duen erakunde orok galdera hauek egin beharko lituzke.

CHECK-LISTA

Haurrak babesteari buruzko lege-araudiari buruzko ezagutzak (Haurren Eskubideen Adierazpena, GIH, LOPIVI, autonomia-erkidegoetako eta tokiko estrategiak)

Inguruan esparru horretan dauden protokoloak eta prozedurak maneiatzea.

Indarkeriaren eta babesaren kontzeptuari buruzko hausnarketa.

Ingurune fisiko-emozionala segurutzat jotzeko azterketa.

Tratu onerako helduen gaitasunak berrikustea.

Haurren parte-hartzearen maila

Haurrak babesteko barne-politikak izatea.

Prestakuntza jaso duten babes-erreferente proaktiboen presentzia..

Haurren eskubideen aldeko sare eta foroetan parte hartzea.

Bidegintzak, EDE Fundazioarekin batera, haurrentzako ingurune seguruei buruzko aholkularitza eta prestakuntza emateko TRATU-ON programa garatu du. Gizarte-erakundeei, ikastetxeei, Guraso Elkarteei, aisialdiko taldeei, klubei, enpresei eta haurren babesaren eta tratu onaren arloan hausnartu eta aurrera egiteko interesa duen edozein baliabideri zuzentzen zaie. Bidegintzaren webgunean, gai honi buruzko informazio gehiago duzue: www.tratuon.org

Amaitzeko, Tratu-on programaren bi ideia azpimarratu nahi genituzke:

Gizarte heldu, bidezko eta adimentsu baten ardura da bere haurrak indarkeriarik gabe haztea eta tratu ona jaso dezaten zaintzea. Haurrei tratu ona ematea gizarte osoaren erantzukizuna da, eta guztion artean eraikitzen dugu.


Helduok eskola moduko batera joan beharko dugu, haurrak eta nerabeak hobeto nola tratatu irakats diezaguten (tratuonArtean kanpainan 10 urteko Mikelek esandako hitzak).



9- BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK

Egokiak iruditzen zaizkigun eta sare sozialen bidez sarbide librekoak diren baliabide eta erreferentzia batzuk partekatu nahi ditugu:

- Barudy J. (2010). "Los buenos tratos a la infancia modelan la forma de ser". <https://www.youtube.com/watch?v=3tEUVbgaCyc>
- Aldeas Infantiles- Espirales C.I. (2018). "La promoción de entornos seguros y protectores". https://aldeasinfantiles.org.uy/sites/default/files/media/2021-07/Entornos_Seguros_EspiralesCI.pdf
- UNICEF- Espirales C.I. (2022). "Ver para proteger". <https://www.unicef.es/sites/unicef.es/files/communication/guia-ver-para-proteger.pdf>
- UNICEF- Dirdira (2002). "Infancia y Violencia". <https://www.unicef.es/sites/unicef.es/files/communication/informe-infancia-violencia.pdf>
- BBKFAMILY (2021). Haurren eta nerabeen tratu onari buruzko jardunaldiak. <https://bbkfamily.bbk.eus/es/talleres-y-jornadas/>
- ASKOREN ARTEAN (2021). "Guía sobre la Ley Orgánica de Protección Integral a la Infancia y Adolescencia frente a la Violencia".
- <https://plataformadeinfancia.org/documento/guia-ley-organica-proteccion-infancia-y-adolescencia-frente-a-violencia/>
- Plataforma de Infancia y Universidad de Comillas (2021). "Ciclo de Jornadas sobre la Ley de Protección a la Infancia frente a la Violencia". <https://plataformadeinfancia.org/celebrado-ciclo-jornadas-sobre-ley-integral-proteccion-infancia-y-adolescencia-frente-a-la-violencia-lopivi>
- Bidegintza S. Coop. (2019). "Tratu onari buruzko haurren ahotsak. TratuonARTEan kanpaina". <https://bit.ly/391cUJk>
- Bidegintza S. Coop. (2021). "Helduen ahotsak hauren tratu onari buruz". <https://bit.ly/32JI2gH>
- Keeping Children Safe. "Estándares Internacionales de Protección a la Infancia Organizacional y cómo implementarlos". https://www.keepingchildrensafe.global/wp-content/uploads/2020/07/KCS_ChildSafeguardingStandards_ES_2020_FINAL22.pdf
- EDUCO- Fundación CAIXA (2022). "Protegemos". <https://www.educo.org/landing/protegemos>
- Aldeas Infantiles (2018). "La afectividad consciente como una competencia organizacional". https://www.espiralesci.es/wp-content/uploads/horno_afectividad_consciente.pdf
- UNICEF (2021). "Protección de la Infancia desde el Entorno Escolar. El coordinador/a de Bienestar y Protección". <https://www.unicef.es/educa/biblioteca/proteccion-infancia-entorno-escolar>
- SAVE THE CHILDREN. Child Salvaguarding Politika. https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/politica_de_salvaguarda-childsafeguarding.pdf
- Ruiz Bego. Tratu onari, LOPIVlri eta haur eta nerabeei lagun egiteko esparruei buruzko hainbat artikulua. <https://buentratarte.blogspot.com/>
- UNICEF. (2019) "Educa dando alas". <https://www.unicef.es/educa/biblioteca/guia-curso-educa-dando-alas-participacion-infantil-adolescente>



Online inkesta txiki hau betetzeko gonbita egiten dizugu, gida honen eragina eta erabilgarritasun-maila balioesteko.

ESKERRIK ASKO!

<https://forms.gle/bjCUXGpa8cZEPAF78>



BIDEGINTZA gizarte-ekimeneko eta irabazi asmorik gabeko kooperatiba.

Bilbo, 2022.

Testuak: Begoña Ruiz Ibáñez.

Marrazkiak: Jose Vazquez Herrero



Laguntzailea:

